

GUREESKUDAGO



Parte-hartzaileentzako **IRIZPIDE^{ETA} GOMENDIOAK**



#gureeskudago

GURE
ESKUDAGO



EUS

www.gureeskudago.net

Ekainaren 8an gure eskuekin lotuko ditugu Durango eta Iruñea, erabakitze eskubidearen alde. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugula eta etorkizuna herri honetako herritarren esku dagoela aldarrikatuko dugu eskuz esku, kilometroz kilometro.

Eskaera prepolitikoa dela gogoratuko dugu; herritarrei erabakitze ahalmena ematea dela, hain zuzen, demokraziaren oinarria. Eskubide hori gauzatu nahi dugu. Eta gauzatzeko bidea egitera goaz, gainera. Guztion laguntza behar dugu hartarako. Mota guztietako ahalik eta herritar gehienena. Aniztasuna eta askotarikotasuna dira, hargatik, ekimenaren oinarri. Zenbat eta esku desberdin gehiago lotu, orduan eta eraginkorragoa izango delako bidea; orduan eta azkar eta leunagoa. Beraz, guztiekiko errespetua ezinbestekoa dela gogoratzen dugu.

123 kilometro ehun bat mila eskuekin lotzeko erronka hartu dugu. Baina ekimena arrakastatsua izango bada, Iruñea eta Durango gure eskuekin lotuta egongo direlako izango da. Hausturarik gabeko kate sendoa osatu dugulako. Hori dela eta, berebiziko garrantzia du kilometro guztiak jendez betetzeak, eta horregatik eskatu dizuegu ekainaren 8an bakoitzak aurrez hartutako kilometrorra joateko konpromisoa. Berriz ere eskatzen dugu bakoitza egokitu zaion lekura joateko, hori baita ekimenaren arrakastaren gakoa.

**Zaila da erronka, baina gure esku dago.
Horrexegatik gaude seguru:
Lortuko dugu!!!**

GURE ESKUBIDEA



IRIZPIDE OROKORRAK

▪ **Zure metroa eskuratu.** Oso garrantzitsua da metroa aurrez eskuratzea, antolakuntzak aurreikuspen egokia egin dezan. Ekainaren 8an, dagokizun metroan kokatu.



▪ **Autobusean apuntatu.** Lehenetsun osoa izango dute autobusek, eta beraz, garraio modurik erraz, eroso eta egokiena izango da.

▪ **Ibilbidea**



1 DURANGO

2 IRUÑEA

123 km

▪ **Eraman ezazu
Gure Esku Dago-ren
kamiseta**



▪ **Nahikoa denborarekin informatu zaitetz nola heldu zure metrora.**

EGUNERAKO IRIZPIDEAK

- **Autobusek** lehenetasun osoa izango dute.
- **Garaiz iritsi** zaitez dagokizun metrora.
- **Kasu egin antolakuntzako arduradunei.** Behar bezala identifikatuta egongo dira arduradunak.
- Giza katea **errepidearen ezker aldean** osatuko dugu, Durangotik Iruñerako norabidean. Horrela kokatuko gara, arduradunek besterik esaten ez badute.
- Giza kateari **soinu ozen batekin** emango zaio **hasiera** eta **amaiera**, tokian tokian.
- **Segurtasun arauak errespetatu:**
 - Bide bazterrean egon.
 - Errepidea, zati askotan, ez da moztuta egongo. Beraz, kontuz autoekin eta autobusekin.
 - Edozein ezbehar gertatzekotan, jarri berehala harremanetan antolakuntzarekin.
 - Osasun arazoak egotekotan, eman bide ambulanzia edo gainerakoei.
 - Segurtasunerako langileek lehenetasuna dute une oro: Ambulanziek, Udaltzaingoak, Foralak, Ertzaintzak...
- **Zaindu ingurua.** Zaborrak bildu eta eraman.
- **Giza katea amaitzen denean era ordenatuan joan**, lasai, antolakuntzarako arduradunei kasu eginez.
- Giza katearen **ondoren ekitaldiak egingo dira**, guneka, **Durangon, Bergaran, Lazkaon, Arbizun** eta **Iruñean**. Guztientzako tokia egongo da eta egunpasa polita egiteko aukera.

GOMENDIOAK

- **Autobusean joatea** gomendatzen da.
- Oinez ibiltzeko moduko **arropa eroso**a eraman.
- **Ura eta edatekoak** eramatea ezinbestekoa da. Kilometro gehienak errepide erdian izango dira, edaririk hartzeko aukerarik gabe. Denbora dezente emango dugula kontutan hartu, eta beroa egin dezakeela.

▪ Eguraldi ona egiten badu:



Arropa egokia
Txanoa
Eguzkitarako babeska (krema...)
Eguzkitarako betaurrekoak

▪ Euria egiten badu:



Uretako arropa
Uretako oinetakoak
Aterkia

▪ Eraman jatekoak.

- Adinekoa bazara, **aulkia eraman** ezazu.
- Haurrak badituzu, **ez galdu! Zure telefono zenbakia idatzi haurrari.**
- Etxeko animaliak badaramatzazu, lotuta eraman.

▪ Autoz bazoaz:



Modu ikusgarrian jar ezazu zure kilometro zenbakia. Antolakuntzaren trafiko irizpideak jarrai itzazu. Parkinak seinalizatuta egongo dira. Kontutan hartu autobusek lehenetasun osoa dutela.

▪ Telefonoa kargatuta eraman.

ORDUTEGIA

Oso garrantzitsua da, funtsezkoa, ordutegia zorrotz betetzea. Giza katea ondo ateratzeko gakoetako bat izango da.



10:00 Parte hartzaileak **bakoitza bere kilometrora** helduko dira.

10:00-11:30 **Giza katea prestatuko** da modu animatu eta ordenatuan.

11:30 **Dena prest!**

12:00 **HASIERA.** Txalapartak, adarrak, kanpaiek, bozinek edo beste soinuren batek emango dio hasiera.

12:00-12:30 **GIZA KATEA.**

12:30 Katearen **BUKAERA.** Soinuak adieraziko du amaiera, eta denok ekitaldietara joango gara ondoren.

12:30-13:00 **Irteera** bideratu. (Autobusek lehentasun osoa).

14:00 **EKITALDIA.**

Antolakuntzatik hurrengo ekitaldi banaketa izendatzen dugu, trafiko arazoak saihesteko eta herri guztietan jendea bermatu ahal izateko.

DURANGO: 1.Km-tik 21.Km-ra bitartean. (biak barne)

BERGARA: 22.Km-tik 41.Km-era bitartean. (biak barne)

LAZKAO: 42.Km-tik 70.Km-ra bitartean. (biak barne)

ARBIZU: 71.Km-tik 103.Km-era bitartean. (biak barne)

IRUÑEA: 104.Km-tik 123.Km-era bitartean. (biak barne)

Ondoren, jai giro eta egun pasa bikaina egongo da 20:00ak arte tokian tokiko egitarauekin osatua.

CVTEESKVEIPEA